

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

355 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Apirila

Nabarmen^{tzekoak}

> Getxoko gazteak pandemia egoeran

- > Arabieraren klaseak Algortako Gaztelekuan
- > Zabalik 2021eko Auzolandegietarako izenematea



Arabieraren klaseak Algortako Gaztelekuan

Arabieraren klaseak daude Algortako Gaztelekuan (Urgullu kalea z/g. 3. solairua) asteazkenetan, 17:30etik 18:30era, pasa den apirilaz geroztik, Ayoub Mazarren laguntzari esker. Herriko gazteen arteko elkarlanerako eta kultur arteko topaketarako aukera ona eta berria da ekimena. Ayoubek 22 urte ditu, Marokon jaio zen eta urtebete baino gehiago darama hemen. Coach profesionala da motibazio pertsonaleko gaietan. Oso gaztetatik liluratu du gai horrek, izugarri gustatzen zaiolako bere partaidetza ipintzea, pertsonen era positiboan pentsatzen eta prozesu pertsonal eta profesionalak hobetzen laguntzeko. Agharas elkartean parte hartzeaz gain, beste bi elkartetan parte hartzen du, eta elkarlanean aritzen da hainbat proiektutan bera bezalako gazteei Euskadira iristean bizi duten zailtasun-egoera eraldatzen laguntzeko. Arabiera klaseei buruzko informazio gehiagorako: Algortako Gaztelekua: gauegungaztelekua@getxo.eus Telefonoa: 944660356

BEKAK SARIAK

* **20 "Fulbright" beka**, Amerikako Estatu Batuetan edozein diziplinatan master edo doktoregoa ikasteko, Fulbright Batzordeak deituak unibertsitateko goi-mailako titulua duten pertsonentzat, 2014an edo geroago lortutakoak. Ingeles maila bikaina eduki behar da. Zerbait: 1.400 eta 2.760\$ arteko bidai-gastuak, matrikula eta mediku-asegurua. Eskerak aurkezteko epea apirilaren 14ra arte. Kontaktua Madril: Tel.: 91 702 70 00, registro@fulbright.es eta <https://bit.ly/3szHNLL>

* **Portugaleteko komiki lehiaketa**, bertako Udak deitua, euskaraz edo gaztelaniaz. Hainbat sari ezarri dira, 1.700 eta 100€ artekoak. Lanen aurkezpena maiatzaren 7ra arte izango da zabalik. Interesdunek telefono-zenbaki honetara jo dezakete: 94 472 93 09, www.portugalete.org eta santaclara@portugalete.org.

Getxoko gazteak pandemia egoeran

Munduko pandemiak gure inguruan eragindako egoerak urte bat bete berri duenean, Udako Gazte Zerbitzuak ezagutu nahi izan ditu Getxoko gazteen esperientziak, iritziak, beldurrak, erronkak eta abar. Horretarako, hainbat adin eta errealitatetako udalerriko gazte batzuegana hurbildu da, ez azterketa soziologiko bat egiteko, baizik eta haien errealitatea eta pentsamenduak entzuteko denbora lasaia eskaintzeko, eta, batez ere, ondoren hura zabalteko aukera emateko. Egoera berri honek bizitza materialean eta emozionalean du eragina eta ukitzen ditu, eta horegatik, bie arreta eman behar zaie.



Gazteku eta Inklusio zerbitzuetako gazteei zenbait galdera egin dizkiete. Adin ezberdinetakoak eta askotariko jatorria eta profileko gazteak dira.

Urte honetan zer-nolako emozioak izan dituzten galderari erantzuteko "tristura", "asperdura", "larritasuna", "kezka" eta "antsietatea" aipatu dituzte.

Beren zailtasun nagusienak

izan dira online bidez ikasten jarraitzea, lagunekin ezin egotea, irten gabe egotea, ziurgabetasuna eta jatorrizko herrialdera joan ezin izatea.

Zailtasun horiei aurre egiteko, ikasketetan eta batez ere familian, lagunengan topatu dute babesa, baita sare sozialen nahiz online bidezko jokoaren erabilera ere.

Ea zerbait gehiago aipatu nahi duzun galdetu zaie-

nean, ia erantzun guztiak ildo beretik joan dira, hau da, hedabideekin eta, oro har, gizartearekin haserre daudela, gazteak arduraga-beak eta araukiko errespetu gutxi erakusten dutela esaten baitute: "Etsigarria da gu jomugan jartzea".

Udalerriko gazteek duten ikuspegiaren, sentimenduen eta iritziaren lagin labur bat da. Gazteei beste era batera begiratzeko aukera bat.

Zabalik 2021eko Auzolandegietarako izenematea

Datorren apirilaren 21era arte zabalik izango da estatuko eta atzerriko udako Auzolandegietarako izena emateko epea, Eusko Jaurlaritzak deituta. Horietan 18 eta 30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute, eta auzolandegi bakoitzak adin tarte bat izango du zehaztuta. Euskadin antolatutakoak 18 eta 26 urte bitartekoentzat izaten dira.

Nazioarteko auzolandegietan (munduko edozein herrialdeko gazteekin) parte hartzea aukeratzen duten pertsonen ingelesez ondo mintzatu beharko dute, eta batzuetan auzolandegiko hizkuntza beste bat izan daiteke, esate baterako, frantsesa edo alemana.

Identifikazio elektronikoa izena emateko
Datuak online formularioan

(<https://bit.ly/2P85JHH>) bete behar dira eta identifikazio elektronikoko bitarteko bat beharko da. Bitarteko hori ez edukitzekotan, egungo osasun-krisiaren ondoren identifikazio elektronikoko bitartekoa lortzeko nahikoa epe emango da. Gogoan izan, halaber, hurbileko pertsona batek identifikazio elektronikoko bitartekorik badu, hark ordezkari gisa jardun dezakeela izena ematerakoan.

Auzolandegian plaza hartu ondoren, "Nire Karpeta" atalera igo beharko dute gazteek. Horretarako egun natural biko epea izango dute, aukeratu den egunaren biharrekin kontaktzen hasita. Bidalketa ezarritako epean egiten ez bada, erreserba bertan behera geratuko da, eta ezin izango dute kuota itzultzea eskatzeko eskubiderik izango, salbu auzolandegia antolatzen duen autonomia-erkidegoak kuota itzultzeko aurreikusten dituen egoeraren batean badaude.

Atzerriko auzolandegietarako motibazio eskutitza eskatzen da. Aukeratutako auzolandegian izena eman ondoren, gazteek honako helbidera bidali beharko dute eskutitza: svi@injuve.es. Eskutitza bidaltzea onartua izateko baldintza da.

Auzolandegien zerrendari, baldintzei, dokumentazioari, tokiei eta datai buruzko informazioa <https://bit.ly/2P85JHH> helbidean dago ikusgai.

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Apirila

Hilak 8, osteguna: TXAPELKETA: UNO
Hilak 10, larunbata: IRTEERA: BOLERA
Hilak 14, asteazkena: TAILERRA: ARKATZAK
Hilak 16, ostirala: TAILERRA: VISUAL ART
Hilak 21, asteazkena: EKINTZA: SROMENA EGUNA
Hilak 23, ostirala: TAILERRA: VISUAL ART
Hilak 24, larunbata: IRTEERA: OHE ELASTIKOAK
Hilak 27, asteartea: SUKALDARITZA: SAGARRA PASTELA
Hilak 30, ostirala: TAILERRA: VISUAL ART
Hilak 31, asteazkena: TAILERRA: BOTILAK MARGOTU

* Ordu-tegi berria hurrengoak izango da:

- Astearte, asteazken eta ostegunetan: 17:00-20:00.
- Ostiralean eta larunbatetan: 17:00-21:00.

GureGune
gaztelekua

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Apirila

Hilak 8, osteguna: ESKULANA: PAPERZKO MAKETAK
Hilak 9, ostirala: GAI SOZIALA: GARAPENERAKO ETA BAKEARAKO KIROLAREN NAZIOARTEKO EGUNA
Hilak 14, 21 eta 28, asteazkenak: INTERKULTURALITATEA: ARABIAR KLASEAK
Hilak 15, osteguna: TAILERRA: MARRAZKETA
Hilak 16, ostirala: TAILERRA: ROBOTIKA
Hilak 17, larunbata: IRTEERA: LEGO ERAKUSKETA
Hilak 22, osteguna: MASTER CHEF: TXOKOLATEZKO TRUFAK
Hilak 24, larunbata: IRTEERA: SKATE
Hilak 30, ostirala: TAILERRA: GRAFITI

* Ordu-tegi berria hurrengoak izango da:

- Astearte, asteazken eta ostegunetan: 17:00-20:00.
- Ostiralean eta larunbatetan: 17:00-21:00.

GauEgun
gaztelekua